

8.FUNTSEZKO JARDUERAK



Egin behar ditugun jarduera guztien barruan, 4 ekintza ezberdin bereizi ditugu:

Lehenengo, ekoizpena dago, jarduera honetaz arduratzen dena, plastikozko objektua jada formarekin erosiko dugunez, pultserako materiala kantitate handietan erosiko dugunez, honek kaxak ordenatu eta pultsera bakoitza behar duen neurriekin moztuko luke, pieza guztiak behar den lekuan josi beharko luke. Gero beste alde batetik pultseretan jarriko ditugun hitzak edo esaldiak enpresetara bidaliko ditugu eskumuturrekoak beraiek beren esaldia jartzeko eta gero beraiek beraien bezeroei oparitzeko edo saltzeko, beraien erabakiaren arabera. Atal honetaz arduratuko dena Unai izango litzateke.



Bigarrenaz, kontuetaz arduratzen dena, bankuarekin hitz egin beharko du beharrezkoa bada maileguren bat eskatzea edo edozein zerbitzu jasotzea proiektua aurrera joateko, gainera produktuaren sarrerak eta honek dakartzan gastu guztiak kalkulatu eta idatzi beharko luke eta proiektuko lankide bakoitzari dagokion soldata edo etekina eman. Atal honen arduraduna Julen izango zen.



Hirugarrenez, marketini buruz arduratzen dena, bere izena esaten duen moduan marketin egin beharko luke, hau da, bezero berriei gure produktua hurbiltzea eta erakargarria iruditzea, horrela gure salmentak gora egingo lukete edo gutxienez gure izena ezaguna egingo litzateke. Atal honetan normalean iragarkiak, argazkiak eta bideoak erabiltzen dira bezeroen arreta deitzeko eta normalean funtzionatzen du, gure kasuan sare sozialen bidez egingo genituzke iragarkiak produktua gazteentzako bideratuta dagoelako eta hor guk nahi dugun jendeak ikusiko luke. Coca Cola latek garai batean pertsonen izenak jarri zituzten latetan, gu, beste esaldi mota batzuk jarriko

8.FUNTSEZKO JARDUERAK



genuke pultseretan edo bakoitza bera nahi duen moduan pertsonalizatzeko ere. Atal honen arduraduna Josu izango zen.



Laugarrenez, kudeaketaz arduratzen dena, beste hiru atalekin denbora guztian harremanetan egon beharko luke eta bakoitzari behar duen informazioa eman. Bakoitza bere lana ondo egiten dagoela arduratzen dena da eta arazoren bat baldin badago hau konpondu, kasu honetan arduraduna Unax izango zen. Adibidez ekoizpenean materialak agortu baldin badira Unai Unaxekin hitz egin beharko luke eta Unax material gehiago eskatu eta Unairi esan noiz helduko diren bera lantegian egoteko. Bi astero gutxienez behin laurok bilera bat izatea kudeatzea, lanari buruz hitz egiteko eta guztiok guztiari buruz ondo informatuta egoteko eta ideia berri bat baldin badago, proposatu. Bilera hori non izango den, zein orduan planifikatu beharko luke, horretaz gain, laneko bilerekin berdina egin beharko luke, Julen bankuarekin hitz egin nahi badu, hori ondo zehaztea da Unaxen lana.

